

TOKIKO GOBERNU BATZARRA 2022-03-31

Ohiko Bilkura

Eguna: 2022ko martxoaren 31an
Lekua: Udaletxeko batzar aretoa
Hasiera: 17:05
Bukaera: 17:15

Behar bezala deituta eta gai-zerrendaren arabera jakinarazita, alkate-udalburuaren lehendakaritzapean bildu ziren, lehenengo deialdian, jarraian zerrendatzen diren eta Tokiko Gobernu Batzarra osatzen duten jaun-andreok, egun horretako ohiko bilkura egiteko.

BERTARATUAK

Alkate-Udalburua: Izaro Elorza Arregi andrea (EH Bildu)

Zinegotziak:

- .- Xabier Igartua Loidi jauna (EH Bildu)
- .- Iñaki Olalde Altzelai jauna (EH Bildu)
- .- Iker Oñate Ayastuy jauna (EH Bildu)

Idazkaria: Iñigo Roldan Catalan jauna
Kontu-hartzailea: Paskual Elustondo Darpon jauna

Ez dira bertaratu:

- .- Anik Zubizarreta Arturo andrea (EH Bildu)
- .- Maite Anton Leno andrea (EH Bildu)

1

AZTERGAIK

1. Onartzea, hala badagokio, 7.2022 ohiko bilkuraren akta, 2022-02-24koa.
2. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Elementu eskultoriko bat aukeratzeko ideia-lehiaketako epaimahaikideen izendapena onartzea.
3. Beste gai batzuk.

Behar besteko quoruma dagoela egiaztatu ondoren, alkate-udalburuak bilkura ireki dela adierazi du, eta gai-zerrenda osatzen duten gaiak aztertu dira. Gai horiek Tokiko Gobernu Batzorde honi dagozkio, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23. Artikuluaren arabera.

1.- Onartzea, hala badagokio, 7.2022 ohiko bilkuraren akta, 2022-02-24koa.

2022ko martxoaren 24ko bilkuraren agiria irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, onartzea erabaki du.

2.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Elementu eskultoriko bat aukeratzeko ideia-lehiaketako epaimahaikideen izendapena onartzea.

Alkate-udalburuaren 2022ko martxoaren 30eko proposamenak dio:

Gaia: Elementu eskultoriko bat aukeratzeko ideia-lehiaketako epaimahaikideen izendapena onartzea.

2022ko martxoaren 17ko Tokiko Gobernu batzarraren erabakiz Elementu eskultoriko bat aukeratzeko ideia lehiaketa eta eskultura exekutatzeko eta instalatzeko lanak kontratatzeke kontratu txikia onartu zen.

Kontratu txikia arautzen duen baldintza pleguaren 7. oinarriak honela dio:

"7.- EPAIMAHAIA:

Epaimahaia Artearen, Hezkuntzaren eta Ingurumenaren munduan ibilbide ezaguna duten pertsonen osatuko dute. Epaimahaiko kide batek idazkari-lanak egingo ditu eta jasotako proposamen bakoitzaren balorazio-akta egingo du."

Aipatutako kontratu txikiaren ideia lehiaketa 2022ko martxoaren 21ean iragarri zen Udaleko Iragarri taulan zein Udalaren web orrian eta eskaintzak aurkezteko 20 lan eguneko epea apirilaren 21ean bukatzen da.

Prozesuari hasiera eman aurretik epaimahaikideen izendapena egin beharra dago. 2022ko martxoaren 25ean Zerbitzuburuak egindako proposamena kontuan hartuz,

Azaldutakoagatik, Tokiko Gobernu Batzarrari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Elementu eskultoriko bat aukeratzeko ideia lehiaketako epaimahaikide honako hauek izendatzea:

- .- Artea: Amaia Igartua (Arte Ederretan lizentziaduna)
- .- Hezkuntza eta Ingurumenean: Idoia Bollar Askasibar (Biologian lizentziatua eta Oñatiko Natur Eskolako monitorea)
- .- Ingurumena: Aitor Gerenabarrena Osa (nekazaritza-auzoak eta ingurumen Udal teknikaria)

Bigarrena.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

Hirugarrena.- Erabaki hau udalaren Iragarri Taulan zein web orrian argitaratzea.

Gaia aztertuta Tokiko Gobernu Batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

Eta besterik ezean, 17:15etan, Alkateak bilkura amaitutzat jo zuen, eta esandakoak jasota gera daitezten egin dut agiri hau Alkatearen ontzat emanarekin. Horren fede ematen dut, idazkaria naizen aldetik.

Idazkaria

**IÑIGO ROLDAN
CATALAN**

Firmado digitalmente por IÑIGO
ROLDAN CATALAN

Fecha: 2022.03.31 17:33:01
+02'00'

Iñigo Roldan Catalan